




Bizkaitarrei Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

**Jose Antonio Retolaza,
euskeraren ekintzalea
ume euskaldunak
alfabetatzen II.**



Ez dot errezatuko erderaz



Nabarniz Gotorlekuak

EUSKAL ASTEA 2014

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2014-2015 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 47. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

47. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Ez dot errezatuko erderaz

Arantzazun dago nire lana eta bizilekua. Arantzazu santutegi eta bakarlekua dozu. Andre Mariaren irudi zar baten inguruan sortu ta azi da Arantzazu. Bada bosteun urtez gora, Euskal Erriarentzat fraide komentu andi ta arrunt baiño zerbait geiago dala. Andre Mariaren irudi zarrak erakarmen aundia izan dau alde batetik; bestetik, barriz, fraideak izan dira erromesarekin itz egin dabenak. Arantzazu ardatz eragile bat izan da Euskal Errian. Euskal Erriaren barruz barru aritu dan ardatza. Arantzazuri buruzko erromantze bilduma bera bakarrik bere, naikoa da diodana egiztatzeko.

Jende euskaldunak eragin deutso Arantzazuri, jende euskalduna izan dalako geienik Arantzazura urreratu dana. Jende euskaldun orri bere izkuntzan erantzun bear izan deutso Arantzazuko fraideak. Entzun eta erantzun. Euskaldun jende orren barri sakona izan dau Arantzazuko fraideak. Jende orren izaera ezagutu dau, jende orren nai, bizimodu, aiurri, ezin eta pobretasun sakon ezagutu dau, eta jende orrentzat bizitza bearturik aurkitu da istoriako trantze bakoitzean zear. Jende orren izkuntza ain apalarekiko izan dauan arreta bera, ez da izan makala. Tradizio orretan, gure belaunaldiak ezagutu dauan katemaila, Salvatore Mitxelena izan genduan. Poeta, istoriagille, saiolari. Tradizio onek ba dau egun bere exponente ederrik gure Aita Villasanterengan. Nor bakoizaren sensibilitate, gustu ta joeraz kanpo, eta euskara landuz etxe onetan etorri dan gizaldiz gizaldiko zaletasun abiaduraz gainerik, Arantzazura urbildu dan jendea izan da, emengo euskaltzale-



tasunari etenbage eragin deutsona. Niri beintzat jende ori jat benetan eragille izan.

Eliza-osteratxoa egin ondoren eta ingurua begiratu, edozein bastertxo aukeratu dau jende orrek bere bazkari-legetxoa egiteko, eta an dagoz, izketan baiño isilik, jaki-pardeltxoaren inguruan, isilik eta jaten, noizbeinka zerbait diñoela, euskeraz isilik itz egin bear bailitzan. Kolpean ezgutzen dot usadio zaarreko euskaldun taldea. Erdaldun jendea, edota erdaraz ari dena, altu-altuka mintzatzen da, solteago mugitzen da, abarrots andiagok da nabarmentzen. Ez dau bidurrik, seguru sentitzen da, inguruaren jabe da. Bildurra olako kikildurak loitzen du euskalduna, oso seguru sentituko ez balitz lez ageri da, paraje arrotzean aurkituko balitz lez. Gizaldietako menpetasuna, agian mendeetakoa, nabari jako, setiatutako eiza ikaratu adina ez bada be, abere bildu ta uzkurra dirudi gizajoak. Euskaldun utsa izateak alako bajutasun lotsagarria baleu lez. Jende orren umiltasunak irabazi nau ni, jende au jat nagusitu sentipenaren sustraitaraiño.



Euren Koruan
Jauna goratu egien nai eben
erdaraz ari ziranak.
Euren korura deitu eben
euren pozaren doiñuan
Jauna goratzera.

Urrutira begiratu eben
euzkarazko begiratu.
Ez eutsien jarraitu.
Lurrak erakarrita
korupera jatsi zan
Jauna beeratzera.

Ez dot errezatuko erderaz.
Ez dot zabalduko
erderazko Salmutegirik
Salterioa artu eizu, esan eustien,
eta errezatu gurekin.
Euskaldun anaiak ziran
neure lurrean eta etxean,
erderaz errezatzera
deitu ninduenak.

Erderak ez dau errurik
ezpata ona dalako,
gure kontra iltzale
biurtu dabelako
ies egiten deutsot nik.

Nik neure lurrean
eta neure etxean,
nire izkuntzan
goratu nai dodaz
Jaungoikoa ta mundua.

Inoiz ez dauz aintzat
komunitateak artu
euskaldunon sentipenak.

Beti eskatu deusku
etsi dagigula erdaldunen alde
eta beti etsi dugu.

Ikastetxean
karitaten izenean
erderaz egin bear da.

Kalean
edukazio falta da
euskeraz egitea.

Euskal Erriko ikastetxe batean
apaiz-karrera bukatuta
euskaraz ezin ebalata
erderaz egin eban sermoia
euskaldun utsen artean.

Bere gurasoek ez eutsoen ulertu
ezta bere erritarrek.
Baiña Ikastetxean
karitatearen izenean
erderaz egin bear zan.

Karitatea
esate baterako
zera da:
erderaz egitea
euskaldunen artean.

Beste ejiplu bat:
erdaldunen artean
erderaz egitea
karitatea da.

Gurpide Begoñan

Denontzako da
Jainkoaren itza,
esan eban gotzain jaunak,
eta, erderaz mintza jakun,
baina erderaz bakarrik, zeren
an giñan euskaldunak
ez giñan ain dan danak,
naiz eta geienak.

Auxe esan deust amak.
Baiña gotzaiñak badaki
naiz eta euskaldunak
noizbait geienak izan,
beti garela ondakinak.





Domine, labia mea aperies.

Eta orduan erriko seme batek
otoitz au egin eban:
Itxi egidazuz ezpaiñok, Jauna,
ez dodalako nai erderaz
zure izenik gorai pa.

Naitaez sartu euskuen izkuntzan
bear bazaitut goratu,
itxi eidazuz ezpaiñok, Jauna.

Ez baitzaitut nai nire izkuntza
kabitik bota eben kanpoko
egaztiaren kantuz aipatu,
itxi egidazuz ezpaiñok, Jauna.

Gure mintzaera billuzi au
destaiñuz arbuiazen dabenekin
ez dot nai aorik zabaldu.

Itxi egidazuz ezpaiñok, Jauna.
Zelan bear deutzut aita-izenik emon,
zelan salbatzaille deitu
morrontzan gauzkatenen izkuntzan?

Itxi egidazuz ezpaiñok, Jauna.
Aaltsuen izkuntza ospetsuan
ez niaitzu izketan asiko
osperik ez dauen Erri-ondakin
bartzartu onen izenean.

Itxi egidazuz ezpaiñok, Jauna.
Aundikiengana itzuli ziran
arro eta ergelen izkuntzan
ez dot nai salmorik abestu.

Itxi egidazuz ezpaiñok, Jauna.
Erriko ondakin onen izkuntza zapal
apaldu onetan, zapalduekin batean
goratu ezin baldin bazaitut,
itxi egidazuz ezpaiñok, Jauna.

Erri euskaldunaren izenean, euskeraz.
Euskeraz, Jauna, Erri euskaldunaren izenean.

Ala gureak izan bear ete dau bakarrik
bere izkuntzan goretsi bear ez zaituen
Erria?

Baña gure Erriko katedral-korueta
ez dau tokirik gure mintzairak,
ez eta gure komentuetako salmu-saiotetan.

Baña elizgizon talde bat ere ez dau Erri euskaldunak
ez eta ere elizemakume talde bat
bere orde ez izenean goratu zagizan euskeraz.

Eta euskaldunak akelarretan euskeraz
mintzatzen diran egunotan
inor ez da euskeraz mintzatzen santutegietan,
ez eta euskal fededunen talde aukeratueta.

Baña nik,
euskeraz egin nai dautzut
Erri euskaldun aldrebek onen izenean.

Kapilau mojei

Jainkoari
bardin emoten dautso
erderak,
iñoan "euskaldunak".
Baina erderaz
errezatzen eban berak,
eta erderaz egitera
beartzen zituan
moja euskaldunak.

Pentsatzen nago pentsatsen
Erri pobre baten
izkuntza pobrea
zein pobrea ote dan
pobreza-botua
egiten dabenek
otoitzerako ere
ez dabelako onartzen.

Nik badakit Erri bat
izkuntza pobre bat
ebana.

Nik badakit Erri bat
milla abade ebazana
milla fraide, milla moja.

Nik badakit Erri bat
izkuntza pobre bat
ebana.

Nik badakit Erri bat
kristau zana, oso kristau,
oso, oso.

Nik badakit Erri bat
izkuntza pobre bat
ebana.

Nik badakit Erri bat
Jainkoa bere izkuntzan
goratu nai ebana.

Nik badakit Erri bat
izkuntza pobre bat
ebana.

Nik badakit Erri bat
bere izkuntza pobrean
Jaungoikoa
goratu ez ebana
milla fraideren kulpaz,
mila mojaren kulpaz,
mila abaden kulpaz.



Nabarniz Gotorlekuak

Arrolamendi Nabarniz,

Arratzu eta Aulestia udalerrien artean dagoan mendi bat da, (560 m.) Mendi tontor onetatatik egundoko ikuspegiak agertzen dira, batez be, Urdaibai Biosfera osoa, Mundakako itsasadarra eta Bermeo aldeko itxasoa. Eta inguruetako mendiak, Illuntzar, Ereñotzar, Sollube, Santa Eufemia eta Oiz

Burdin Aroan.

Erbesteko gizataldeak, zeltak, erromatarrak, lurralde onetara eldukera eragin berezi bat sortu zuen gure errian. Europa aldetik etorritako onelako talde bat eskualde onetan sartu zuen, (K.a VI mendean). Arrolamendian sustraitu ziran emengo lur oparoetan eta batez ere, andik ikusten ziran lurralde eta itxasalde zabalagaitik. Egiaz mendi zelaitu au egokia zuen kastro bat jartzeko euren begiratoki eta defentsarako

Gotorlekuak eta edestia.

Oso jakingarria da gotorleku onen edestia. Zelta erriaren aztarna batzuk Kastroak dira, militar antzeko eraikiñak tontor goietan kokatuak. Kastro onen barruan eta inguruan erromatar Jaungoiko Juno eta Venus baten estatuatxoak aurkitu ziren, eta baita ere, arri batzuk inskripzio batzuekin, esku errotak, zeramika, burdin eta brontzezko zatiak.





Ikerketak eta azterketak.

Kastroaren lenengo ikerketa eta indusketa lana 1827an egin zan. Geroagoko azterketak (1844) B. Taracena eta A. Fernandez de Avilesek zuzenduak dira. Aztarnategi onetan ikusten da beste peninsularen iparreko gotorlekuekin antzekoak dirala. 1982 urtean Luis García Valdés, zuzendaria zalarik, indusketa bat eginik, K.a. II mendeko zeramikazko zatiak aurkitu ziran. Aurkitutako beste gai arkeologjiko batzuk erromatar aldikoak ziran, adibidez. Arrolamendian eta beste leku batzuetan ere erromatarren biziera eta jardueraren lorratzak ikusten doguz.



Gaur egun.

Joan diran urteetan Bizkaiko Foru Aldundiaren zaingo eta babesarekin nazioarteko gazte ikaslariak lan goragarriak egin dabez, batez ere, udako oporraldian. Zer eta zelakoa izan da lan ori? Zoritxarrez kastroa millaka urteetan, sasi, sastraka eta luperi artean ondatuta eta ondamentian egon da. Gazte ikaslarien lanagaitik gaur ikusten dogu argi ta garbi kastro zar orren leengo izakera, arrizko ormak, orma bitartetan barne aldeak, iruzur bideak, okerruneak eta inguruan begiratokiak

Kastroak 6 Ha. gitxi gora bera dauz, baña zati aundi bat aztertu barik dago. Onelako eraikuntza aundia gizarte talde batek egiña dala, ez dago sinistu bearrik





Illuntzar gotorlekua.

Illuntzar mendi apatza eta zoragarria da, 720 m. Bertatik ikusten diran ikuspegiak, bene-benetan, ezin esan alakoak dira. Eta mendiaren gallurrean eraiki zan kastroa. Nabarnizko alkateak 1863 urtean aitazen dau Bizkaiko Aldundiari bialdutako agiri batean, "erromatarren etzauntza aztarnak". Defendatzeko ormak gaillura inguratzen eben ekialdea izan ezik. Ikerlariiek uste dabe Arrolamendiko gotorlekua baño zarragoa dala. Gaur egun lubaki bat besterik ez dogu ikusten.



Zenon Uriguen C.P.





Jose Antonio Retolaza, euskeraren ekintzallea ume euskaldunak alfabetatzen

Udabarria bere señaleak agertzen asi zane-ko, aren bisita ofizialaren ordua baño apur bat leenago, martiaren 12an, itxi ebazan begiak gure Jose Antoniok. Begi nekatuak, ainbat buruauste berari emonikoak. Baña artean, ume euskaldunen irribarreak liluraturiko begiak; Euskal Erria baretetik bestera ikusi eta arakaturikoak; bere Abandoko, Muxikako eta Arrazolako, Anbotoko... irudiak izango ebazan bere biotzeko gomutetan gozo-gozo gorderik. Espiritu argi, fin, ameslari eta ekintzalle baten ispilu izaniko begiak itxi ziran betiko mundu onetarako, eta areekaz batera, apurka-apurka agortuz eta amatatuz joaniko arnasa eta bizia. Berak eta gutariko askok eta askok siñisten dogenez, *betiko argiak argi egin begio*.

Emen gauza asko eta ederrak itzi deuskuz. Kili-kili pertsonaiagan ustu eban berak eukanik onena: Euskal Erri euskaldunaren asmoa; euskaldun abertzale baten mezu garbi eta zorrotza. Or geratzen dira aldizkaria bera, era askotako liburuxkak... Or geratzen da batez be, agerian ikusten ez dana: orduko umeengan, gaur egun gizon eta emakume gazteak diranengan, oparo erein eban errigintzako eta euskalgintzako azia. Multzo arrigarria da, asko da, itzi deuskuna, baña ziur asko geiago izango da asmoen, ametsen, desiren bizkar-zorroan eginkizun geratu jakona. Ori izango da, bearbada, ekintzalle andi eta idealista fin guztien zoria.

Ez dakit euskeraren eta euskal kulturaren aldeko pertsonok ondo oartu garen onek itzi dauan utsuneaz.

Kili-kili aldizkariak, Jose Antonioren eskutik BIEren (Bizkaiko Ikastolen Elkarte) eskuetara igaro ostean, bizi laburra izan eban. Aldi orretan Andres Osa "Sakona" izan eban zuzendari. Amairu ale argitaratu ziran guztira: 234. aleaz asi eta 247.az amaitu. 2001eko maiatzean ekin eutsan bide barriari eta 2002ko abenduan amaitu. Bitarte orretan, oporraldietan izan ezik, illero kaleratzen zan era bitara: bizkaieraz eta euskerara batuan. 2002ko azken alean zuzendariak agur egingen deutse irakurleei. Azkenik, babesle eta laguntzallei esker ona agertu aurretik, tristurazko oar au dator: "Dagoeneko urte bi igaro dira Kili-kiliren ardura artu genduanetik, eta esku artean dozuen ale onegaz, biozmiñez eta tristuraz, amaitutzat emoten dogu aldizkari onen kudeaketan izan dogun erantzukizuna". Aren aotsa, aldizkariaren bidez lau aizetara zabaltzen zana, or-



duan isildu zan. Ez bere borondatez. Isillarazi egin ebela esan beariko, bizi-iturriak eta laguntzak ukaturik. Egiak egingo dau bere bidea, eta laster egin be, nik uste. Karmel aldizkariko lerro urri oneek ez dau illundu nai Kili-kiliren il-kanpai aireaz, gizon andi baten gomutaz argitu eta alaitu baño. Zergaitik aitatu dodan aldizkariaren isiltzea? Gure gizartean zirkulazioan, komunikabideen aoan, airean, ez dabilana, baztertu eta aaztu egiten dala adierazteko. Izan be, arriturik nago zein erraz eta laster aazten dogu pertsona andi eta gogoangarriak. Begi bistatik galtzea naiko izaten da, askotan, ia aren gomuta galtzeko. Jose Antonio il barri zala, komunikabideei erreparatu neutsen eta ez neban aurkitu uste neban adinako oiartzunik. Biaramunean eta urrengo egunetan agertuz joan ziran lan eta albisteak tantaka -tantaka.

Aspaldi ezagutu neban. Francoren diktadurapeko egun ilun areetako baten: Bilboko Manzarredo kalean abade mordo bat eta erlijioso batzuk egozan alkartuta Gotzaindegiko gela areetan, diktadurak eta Gotzaiñak ari men eginik, gure Erriaren aurka euken jokaera bidegabea salatzeke. Ni be an nintzan, baña nirea areei alkartasuna adierazteko bisita antzera izan zan geiago. Eta, olan, urrengo egunean, jaieguna izanik, abadeak mezen konpromisoak ebezanak; areetariko baten ordezeko egiteko, bere autoan artuta eroan ninduan Jose Antonio Retolazak Meñakabarrena neure auzora. Gerora artu-emon andia izan dogu eta sarri gogora ekartzen eban berak ni leenengoz ezagutu ninduanekoa.

Biografiaren arian

Jose Antonioren bizitzaren barri alde askotan irakurri dot. Berberak idatzirik lan autobiografiko naiko zeatz eta osoak laster argia ikusiko daualakoan nago. Bien bitartean, Bidegileak sailleko liburuxkan, Asier Astigarragak idatzirikora eta Jose Antonio berak *Kili-kiliren* 163-164. alean idatzi ebanera jo dot

aren bizitza-zertzelada batzuk jasotzeko. Labayruk 1993ko abuztuaren 16an egin utsan omenaldirako idatzirik itzalditik artuta dago. “Kili-kili eta biok” dau izenburua. Emen euskeraren inguruko zertzeladak agertzen deuskuz, geienbat. Ikusi daigun leenengo, Bidegileak liburuxka. Olan asten da:

Jose Antonio Retolaza Ibarguengoitia, Kili-kiliren eta euskeraren aldeko ekinbide askoren aita, 1929ko ekainaren 6an jaio zan, Bilbon. Manuel zan aita; ama, Teresa. Iru anaia ziran etxean: Juan, Luis eta Jose Antonio, gazteena.

Goazen “Kili-kili eta biok” idazkira:

Bilbon jaio nintzan. Nire ikastola: etxea. Nire andereñoa: ama.

Ni jaio nintzanean, 1929an, ez zan oraindiño ikastolarik Euskal Errian. Andik urte batzuetara Errotatxueta ikastola sortu zanean, amak eskutik oratu eta bertara eroan ninduan. Bidean, naiz eta amak txokolatinak erosi, negar egiten neban. Ikastolan ere negar eta negar... Azkenean amak, beste bide bat arturik, Santiago Apostol ikastetxera eroan ninduan, nire anaia bien ondora. An “Retolazita”k (alan deitzen eustien nire anaien lagunak) erderaz ikasi eban.

Jose Antonioren beste zaletasun andietariko bat euskal dantzena izan da. Santiago Apostol ikastetxean asi zan ikasten eta lantzen. Bidegileak liburuxkak au dakar:

An ikasle zala fraide batek leenengo eta Biktore Olaetak gero, gaztetxoekaz dantzari-talde bat presatatu eban. Olaetak, bere akademia eratu aurretxoan, bertoko dantzak eta gerra zibileko atzerrialdian Ipar Euskal Erritik ikasita zekartzan Zuberoako maskaradakoak irakatsi ebazan. Irakasle andiarekaz asi zan, bada, leenengo. Gero, dantzari-taldeko beste lagun batzuekaz alkartu eta San Anton elizara joan zan beste talde bat eratzeko.

Bilboko Merkataritza Eskolan Merkataritza-Peritajea egin zuen Jose Antoniok. Ikasketok amaitu orduko familiaren arotzeriaren ardura artu bear izan eban, Luis bere anaiak frankismoaren erasoari ies egin bear izan ebelako eta beste anaia nagusiak goi-ikasketak burutu bear jakozalako

Aldi artan D. Claudio Gallastegi zanak bereganatua zeukanez, San Antonen eratu eban taldean sartuta ebillen, Acción Católicaan eta.

Gerratean Muxikara aldatu ziran. Ango giro euskalduna azpimarratzen dau berak, aitaturiko “Kili-kili eta biok” izeneko idazkian:

Gerrea sortu zan, Muxikara eroan ninduen. Ango mutikoak, euskaldun utsak, nire euskerea entzun eta barre egiten eben. Ika egiten eutsen alkarri. Nire belarrientzat berbakera barria. Erderea bere euskaldundu egiten eben areek.

Muxikan abadeak be larri ibiltzen zirala diño, Elizak, Francogaz alkartuta, sermoietan erderaz egitera beartu ebazanean Euskal giro ori dala-eta diño: Muxika izan zan ba, Muxikako erria, nire bigarren ikastola. Leenengoa, Bilboko bere etxea izan zala esan deusku eta, andereñoa, ama.

Gerrea amaitutakoan, Bilbora ekarri ninduen barrero. Bilbon “agur” berbea esatea bere debekatuta egoan. Agur, en cristiano, “adios” zan. Kristau eraz esan bear zan, ba. Bestela, belarrondokoa, aceite de ricino edo diru-nekea, multea.

Eskolako eta kaleko erdal giroa etxera eroan genduan iru anaioak. Aita ilda, ama arduraz eta arazoz josita... Erderea sartu zan gurean.

Amazortzi urte zituala Gasteizko Seminarioa joan zan Jose Antonio abade izateko. 1947a zan. Euskeraren kezka jarraitu eban; an iñon baño kezkatuago, bearbada, latina eta grekoa bai, baña euskerarik deskuiduan be ez zalako entzuten, euskaldunik ba ete egoan zalantza sortzeraiño. Ona berak diñoskuna:

Euskeraz ba ete ekian, gero, an iñork? Jakin bai, baekien. Ara: etxeokak bisita egitera etorten ziranean euskeraz egiten eben ia geienak.

Eta berari jazorikoa kontatzen deusku eta alako bisita baten izan eban lotsaria euskera trakestua ebalako:

Bein Floren Barandikako etorri zan Muxikatik bere seme Iñaki ikustera; bide batez neu. A lotsaria! areek fara-fara... berbetan; ni, ostera, tikili-takala euskeraz egin ezinik. A, egundoko lotsaria! Euskalduna bai banintzan, baiña buruko zein baztarretan neukan euskerea?

Euskaldun oso biurtu nai eta ikasteari ekin eutsan bere kabuz eta erdi isilpean:


Euskal liburu billa asi eta ozta-ozta iru eskuratu nebazan: Zamarriparen Gramatika, Lopez Mendizabalen iztegi txikia eta Altunaren Ipuñak. Gero, ikas aretoan, gure zaindaria, gure prefektuak, arantz egiten ebanean, nik latin liburupetik Zamarriparena ataraten neban, kukuka, pornografi liburua bailitzan...

Olan asi nintzan neure “vascuence”a landuten. Zergaitik diñodan “vascuence”a? “Euskera” berbea aitatu neban baten Don José Maria prefektuak “se te ve la oreja” esan eustalako... “Euskera” berbea “proscriptus” zan aldi aretan.

Giro orretan, ba, alegindu nintzan neure burua alfabetatzen, seminarioan.

Bestalde, euskal dantzak be ez ebazan alde batera itzi seminarioan. Onetaz albiste au dator Bidegileak liburuxkan:

Eliz ikasketetan ibilli arren, dantzarako zuen joera ez zuen baztertu eta Txirinbil izeneko dantza-taldean ibilli zan seminarioan, Zuberoako maskaradakoak irakasten beinik bein. Egun batean, orduko alkatea eta Bueno Monreal apezpikua bera bere bitarteko zirala, Principal Antzokian egin zan ikuskizun andi batean agertu zan dantzari, zamaltzain. Urteetan eta urteetan Jose Antonio ibilli dan leku guztietan, aukera izan dauanean, beti eduki du dantzari-taldetxoren ba-





ten
ardura:
Gasteizko Seminarioan bertan, Derion, Zamudion (abadegai zala), Arrazolan eta inguruetan (abade egin eta gero), Muxikan, e.a.

Abade eginda, Arrazolara bialdu ninduen, diño Jose Antoniok. Baiña abenturazko joan-etorri baten antzera kontatzen deusku beste leku baten. Irudimenetik sorturiko kolore biziez jantzirik; baiña batzuetan, badakizu errealitateak gañditu egiten dauana fantasia. Olan diño:

Domekea zan. Urtea, 1957. Iñaki eta biok Urkiolara joateko asmoaz Bilbotik Durangora etorriak. Onetan, non agertzen dan VI-75 matrikuladun autobusaurio bat gure begien aurrean. "Orrelako baten bein ibiltarren, Iñaki, edonora joango nintzateke ni, gaur". "Urrun, ez" erantzun eustan arek. "Durango-Axpe-Arrazola" iñoan aurreko aldean eroan letreruak. "Arrazola, non dago?". "Munduko bazterrean" erantzun eustan esne-kantinak barrura sartzen ziarduanak.

Martxan ipiñi ebenean tarran-tarran egin eban eta dardaran jarri zan. Gero, bide lauan, ondo. Aldats goran... trinkilin-trankalan. Eldu gintzazan, orregatiño, Arrazolara. Anboto bertan, zut eta tente. Anboto barrenean, eleizea. Eleizan, kantu-otsa.

"Ona ez zaitue bialduko. Emen badabe abadea" esan eustan lagunak. Ni, orduan abade barri, nora bialduko zain nengoalako iñoan arek ori. Arek igarri ez, baiña! Biaramunean, Gotzaiñak, Arrazolara bialdu nindun.

Arrazola, Anboto azpiko erritxoa, biotzean sartu jakon asiera-asieratik. Bera be maitatua izan zan, batez be ume eta gaztetxuen zoramena. San

Migeletan, erriko jaietan, egin eban sarrera, era onetara:

– "Zaarrok neure gurasoak baziñe lez maiteko zaituet; elduok, neure anai-arrebak lez; gazteok eta umeok, neure seme-alabak lez..."

Eta bere kontaeran olan jarraitzen dau:

Orraiño ondo, oso ondo. Baiña gero bide erdian klask egin edo... Eta neure burua erdi galduta ikusirik

– "... bueno, urrengoan geiago!" –esan neutsen amaitzeko. Eta albotik beste batek

– "... eta obeto!"

Don Martin abadea zan ori esan ebana.

Ango euskal giro jatorrak zauskada eragin eutsan, baiña ulertze aldetik, asieran, izan ebazan aibat arazo, berak umore finez kontatzen ebazanean. Esaterako, aitorlekuan, aopean berba egiten ebela-ko-edo, ez ebalaz ezer ulertzen diño; arek ori jakin balebe, illara andiak etorriko itxakiozala... Bestaldetik, umeen aitortzak.

Eguenetan umeen autortza izaten neban:

– Jauna, to egin dot.

– Tira, ba! Ez egin geiago.

– Jauna, to egin dot... –beste batek bere!

Baiña ain txikia eta to egin... niñoan neure kautan.

– Jauna, to egin dot. –beste batek bere!

Bueno, bueno! Axpeko Don Luisengana joan nintzan bereala.

– To egin? Alkarri ika egitea dok ori, gizon! –erantzun eustan.

Urrengo domekan esan eutsen gurasoei, naiko pekatu egoala munduan, gu barriak eta ez diranak asmatzen ibiltzeko. To egitea euskera jatorra dala.



Alan, sakristian sartzen zala, diño, zapatuetan emakumeak eliza garbitzera etozanean, areei “ño” egiten entzuteko. Beraz, Jose Antonio, era berean, irakasle eta ikasle izan zan Arrazolan. Kristoren Barri Ona, dotrina (katekesia) irakasten eutsen ango eliztarrei batetik eta euskal kulturazko gauza asko bestetik, batez be euskal dantzak. Berak, barriz, euskera jatorra, erri euskaldun eta baserri giroko baten pentsaera eta izaera ikasiko ebazan areengandik. Orregaitik au esango deusku: Muxikako erria nire bigarren ikastola izan bada, Arrazolako erria Unibertsitatea izan dot.

Arrazola, ba, Bilboko kalekume batentzat beste mundu bat aurkitzea legez izan zan; bere burua osotzeko falta jakon beste erdia aurkitzea legez. Euskaltzale eta abertzale kaletar arek bere biotzeko ametsak, gogoak betetzeko leku aproposa aurkitu eban an. Ekintzen eta asmoen zurrunbiloan sarturik, eta gaztetasunak bultzaturik, ainbat gauza erakargarri eta polit sortzen ziran. Orreen artean polita eta gogoangarria izan zan, eliza aretan munduan euskeraz emon zan leenengo meza emotea. 1959ko ekaiñaren 21ean izan zan, Erromak tokian tokiko izkuntzetan meza emoteko baimena emon baiño urte batzuk leenago. 1959an Arrazolako elizan emon zan munduko leenengo euskerazko meza ori, jakina, ez eban emon Jose Antonio Retolazak, komunikabideetan orain esan dabenez; ez, Jose Antoniok ez eukan orduan euskeraz meza emoteko baimenik; bai, ostera, Frantzisko Ballester Viú jaunak. Au Derioko Seminarioan egoan irakasle. Onek Ekialdeko erritua erabiltzeko baimena eukan eta erritu orri jarraituz munduko edozein izkuntzatan emoteko baimena be bai. Ori jakin ebanean, Arrazolako abadeak, Jose Antonio Retolazak, arengana jo eban eta poz-pezik onartu eban. Euskerazko mezako testuak Karmelo Etxenagusiak prestatu ebazan Seminarioko euskerazko ikasle teologoak lagun-duta. “Meza ori kanpandorreko megafonoak lau aizetara zabaldu eban eta danean entzun zan. Anboto tontorrean... eta Zeru Goian”, diño onen eratzailleak. An-

dik 43 urtera barriro batu ziran orduko protagonista batzuk, 2002ko ekaiñaren 9an. Jakiña, euskal meza nagusia izan zan egun orretan be jaialdi orren ardatza; orren ostean, orduko argazkien erakusketa eta pelikularen emonaldia; gero, oroitarria jartzea. Mar-molean grabaturiko oroitarriak au dino:

**ELEIZA ONETAN
IZAN ZAN LEENENGOZ
MUNDUAN
MEZEA EUSKERAZ**

1959. URTEAN
BIZANTZIAR-MELKITA
ERRITUAN

Onetaz ez dot geiago ezer idatziko, aldizkari onen 240. zenbakian dago zeatz-meatz azaldu-rik-eta (ik. *Karmel 2002-4*).

Arrazolan abade zala, Elorrioko Funcor Ikastetxeko zuzendari be bazan. Eskola ordutik kanpo euskera ikasgai jarri eban. Ori ez zan, antza danez, erriko agintariaren gogoko izan eta Paulo Gurpide gotzaiñagana jo eban salaketa jartzera, ikastetxe ori Elizarena zalako. Gotzaiñak andik alde egiteko agindu eutsan. Erri-agintarien mende dagoan gotzaiñaren mende ez ebal jarraitu nai eta Elorrioko Funcor ikastetxea eta Arrazolako parrokia itzirik, Jose Antonio bere etxera, Bilbora, joan zan gaixorik egoalako aitzakiaz eta andik Madrilera, an psikopedagogia ikasketei ekiñez. 1963ko abenduan, Vatikanoko II. Kontzilioak erri-izkuntzak onartu eba-

zan liturgiarako. Baiña Estatuko izkuntza ofiziala, au da, gaztelania, artu nai eban askok erri-izkuntzatzat. 1965eko urtarrillean asiko ziran Bizkaian liturgia era barriz egiten, baiña Jose Antoniok jakin eban gaztelaniaz, españolez, izango zala aldaketa ori. Autu ori erabillen Don Klaudiok eta biak; golpe latza izango litzatekeela



ori gure izkuntza eta kulturarentzat. Albait lasterren Bilbon zer edo zer egin bearke zala ori alan izan ez zedin. Iri nagusia izanik, Bilbok izan bear ebala eredu Bizkaiko gañerako errientzat. Irakurgaiak ziran geienbat falta ziranak erri-izkuntzan eta Jaime Kerexetaren itzulpenak erabiliz, Jose Antoniok berak prestatu ebazan. Erderazko Irakurgaien molde berean inprimatuebazan eta, Gotzaindegiko Liturgia Batzordeak bidaltzen ebala iragarritz, Bizkaiko eliza guztietara zabaldu eban euskerazko itzulpena. Gotzain jaunak esker oneko ainbat esku-titz eta dei jaso ei zituan... Don Paulo Gulpide zan gotzain orduan eta gozoa jarriko zan!

1965eko Urtebarri egunerako, ustez, guztia prest eukan Jose Antoniok. Asieran San Bizente bere parrokia etorri jakon gogora. Izan be, San Antonen baeben naiko buruauste lendik be. Baiña San Bizente parrokian ezin zan; berandu arteko orduak artuta egozan eta ez zan bitartetxu bat be geratzen. Besterik ezean, San Antonera. Azkene-ko meza 12:30ean zan eta orren ostean izango zan euskerazkoa. Ez aldare nagusian, alboko Begoña-ko Amarenean baiño. Jende gitxi etorriko zalakoan erabaki eban olan apal-apal egitea. Txinpartak antzerki-taldeko gazteei eskatu eutsen aoz ao zabal-tzeko euskal meza izango zala ordu batetan. Eldu zan eguna. Jose Antonio sakristian zan liturgi-a-paingarriak janzen. An izan zan izatekoa! Jende multzo ikaragarria batu zan San Anton inguruan.

Aurreko mezakoak, barrukoak ezin urten eta kanpokoak ezin sartu. Eliz atari inguruan tupust egin eban batzuk eta besteak eta bul-tzaka eta zarataka jardun eban jendezko baso aretan, kanporako eta barrurako bide-a aurkitu eziñik. Alako baten argitu zan bidea, eta bake santua. Asi zan San Antongo lenengo euskal meza. Jendea pozarren eta unkiturik, begiak malkoa erielatzen. Berandu zan eta meza isilla, sermoi bakoa izango zala erabaki eban abade biak, baiña giroa pil-pil eta alako jendetza aurrean, Don Klaudiori gainez

egin eutsan barruak eta sermoi gartsua egin eban unean uneko sentimenduen esanera...


Urrengo astean be barru batuko zirala iragarri eban eta, ia oartu barik, auxe izan zan San Antongo euskal meza ospetsuaren asiera. Ainbat denboran, zapatu guztietan etorri oi zan Jose Antonio Madriletik domekako meza orretan esku artzeko. Ospe andia artu eban meza onek. Gero 12etan ipiñi zan eta Don Klaudio bera izan oi zan meza emolle eta sermolari.

Kili-kili pertsonaia

Madrilen igarotako aldia ez zan egonean ego-tea Jose Antoniorentzat, bestera baiño: "Madrilen psikopedagogia askorik ez neban ikasi, baiña euskerrea ikasi eta irakatsi, bai", diño berak. Eta orrez gañera, aren buruak, irudimenak, artista-senak lanean ziarduan bizi-bizi, sortze-lanean. Ango ikasketak baliagarri izan jakozan sortze-lanerako. Eskultore baten antzera, bere barruan molde emon nai eutsan pertsonaia barri bati. Amets, asmo, bioz-kada eta gogoeta guztion fruitua izango zan, andik pixka batera, Bilboko San Antongo zubi ondoan kukuka jaio zan pertsonaia. Mutiko euskaldun jator baten traza eukan kanpotik. Baiña euskera kontuan jakituna zan, Euskal Erriko neskato-mutikoen laguna eta maisua. Egin-egiñean be, Jose Antonio

Bilboko kaletar adeitsu eta finak, beti goitik bera trajez eta gorbataz dotore janzen zanak, baserritartxu peto-peto bat, kaiku, abarka, txapel eta guzti, sortu eban zeregin orretarako. Sortzalea eta pertsonaia alkarren osagarri izatekoak dirala dirudi. Subkontzienteak eraginda egingo eban alakoa, ala berriaz eta naita egingo eban? Alakoa edo olakoa, Kili-kilik maisu-lan andia egin eban Euskal Erriko ume eta gazte-txoen artean. Pertsonaia onetaz lau bat idazlan idatzi dodaz aurreko urteetan Karmel aldizkari onetan. Areetariko bitan Kili-kili bera artu neban gai; beste bietan, Kili-kili





pixka bat zearka agertzen da. Batak Gora Kili-kili dau izenburua eta besteak “Kili-kili” neska-mutiko euskaldunen maisua. Lenengo lan orretatik ekarriko dodaz ataltxo batzuk:

Ume euskaldunen maisu aparta; areei euskeraz bizi izaten, euskeraz barre egiten, euskeraz olgetan irakatsi deutsena. Onezkero badira 35 bat urte Bilboko San Antongo zubi ondoan jaio zala. 1966an etorri jakun mundura. Aldi latzak ziran areek; oraingoak be ez asko gozoagoak. Ezkutu-gordeka eta kukuka asi jakun andik. Ezin, ba, erronka andirik egin. Bildurra eta eza zan nagusi; debeku eta madarikazioak gainean; zirrikitu txikiak erabilli bear agintarien zigorrari ies egiteko. Zirrikitu orreek eliz gela eta antzeko lekuak ziran. Olan asi zan Kili-kili leenengo pausotxuak emoten. Baiña eragozpenak eragozpen, mutikoa osasuntsu egoan. Inñoren aurrean kikildu barik, bere nortasuna geroago eta garbiago erakusten asiko jaku. Beti be bere osabearen eskutik, lagun barriak egingo dauz; lagun euskaltzaleak. Leengusu-lehengusinak izango dira oneek. Olan, apurka-apurka familiarte barria batuko da Kili-kiliren inguruan.

Errietara joango da; ume euskaldunengana. Oneei euskera darie berez-berez, baiña euren izkuntzan eskolatu barik dagoz. Kili-kilik irakatsiko deutse euskeraz irakurtzen eta idazten. Orretarako, koadernotxu batzuk erabiliko dauz: lan ta lan. Baiña arek, ume euskaldunak euskeraz eskolatzeaz gainera, amets ugari ebazan biotzondoan zirika. Orreei guztiei bide emon nai eutsen eta apurka-apurka, kopau txiki eta gozotan, bere lagun-txuei eskaiñi. Orretarako bitartekoa Kili-kili aldizkaria zan. Abagunerik txikiena agertu jakonean, leenago itxita egoan ate ori zabaldu zanean, ez eban aukera alperrik galdu. Kili-kili Euskal Erri osoko umeen lagun biurtuko da; ume euskaldunen teillatu bako ikastola. Eskolako lau

orma barruan jardutea ez dau gogoko. Aren ikastola bizitza bera baizen zabala da. Ez dau maite toki itorik. Aldizkaria izan dau Kili-kilik bere mezua zabaltzeko tresnarik onena. Baiña onekaz batera badauz beste ainbat lagungarri be: gazetxuentzat ateratako liburuxka interesgarriak, “Kili-jaiak”, “Kili-irratia”, sariketak, txangoak Euskal Errian zear, zozketak... Olan, txiri-txiri, lan eta lan, ekin eta ekin aurrera egin dau. Euri ona lurak gozo-gozo artzen dauanez, alantxe artu dabe ume euskaldunak aren mezua. Onezkero Kili-kili gure istoriaren zatia da, baiña ez lorratz batzuk itzita atzean geratu dana, egiñez-eginez doan istoria bizia baiño.

Goian aitaturiko beste lanetik ataltxu au ekarriko dogu ona:

Egia esan, Kili-kili, umeen artean tartekatuz, areekin jolas egiñez, areei irakurgai politak eskuratuz, tokian tokiko euskera naiz batua txukun eta dotore berba egiñez da maisu. Ez da berbalapikoa. Ez da erretolika luze eta gogaikarrietan denbora emotearen zalea. Kili-kilik egin egiten dau. Bere uste edo aburuak, erdi-olgetan irribarrez eta umorez, umeekaz egitearen aldekoa da. Inguruko erderak be jakin arren, euskera utsez diardu beti. Bizkaieraz eta batuaz. Erdaldunen bat aurrez aurre dauanean be, euskeraz egiten dau eta ez dau besterik aotan artzen. Ez da batetik bestera, euskeratik erderara, saltoka ibilli oi dan kaskarina.

Umeen gogoa zein dan ondo begiratzen dau; zerk erakarten dauzan areek. Ez dago luzaro azertu bearrik, berez-berez agertzen dabe-eta. Mundu zabaleko komikiak oso atsegin dauzela oartu da. Ospetsuenak asterix eta mortadelo eta filemon. Kili-kilik komiki oneek eskaintzen deutsez bere irakurle txikiei euskerara itzulirik. Alan be ez dira itzulpen soilak. Kili-kilik ez deutse euskal jantzia bakarrik ipintzen, baita, aal dala, euskal muiña edo euskal espiritua be. Mundu zabaleko komikiak euskerara itzuliaz batera, ango pertsonaiak euskalduntzen aalegintzen da. Kili-kilik, jakiña, euskera maite-maite dau. Euskera biotzetik pasatuta gero eskuratzen deutse umeei. Euskera ona, txukuna, betiko euskera, albait garbiena. Mutiko au, izan be, ezertan bada maisu, euskeran da...

Aldizkariaren bizkarrezurra munduko komiki ospetsuak dira. Zergaitik munduko komikirik ospetsuenak euskeraz, originalak, bertan sortuak eta asmatuak egin bearrean? Gure umeak munduko komiki orreek barneratuak dauzelako; beraz, bar-

neraturiko orreei buelta emon eta euskeraz eskal espirituaz eskaintzea da kontua.

Dana dala, Kili-kilik arlo zabala artzen dau. Badau berton sorturiko komiki bat edo beste be, esaterako, Erramun Basajaun. Orrez gaiñera, gure istoria, gure pertsonaia istorikoak, oraingo pertsona askori egiñiko alkarrizketak. Or agertzen jakuz kirolariak, kantariak, dantzariak, artistak, eskultoreak, idazleak, irakasleak... Kili-kilik mezu ugari zabal-tzen dau: albisteak, gure Erriaren izaera, oiturak, kultura, aurretikoengandik jatorkuna...

Omenaldiak

Jose Antonioren ainbeste urtetako lana ezin oarkabean igaro. Aintzat artua eta goratua izan da. 1975ean euskaltzain urgazle egin eben eta 2000n euskaltzain oorezko. 1984an Euskeraren Aolku Batzordeko kide aukeratu eben. 1996an eiziek oorezko bazkide izendatu eban. Ainbat omenaldi be jaso izan dauz; orreen artean, 1993an Labayruk eta habek egiñikoak; 1993an, Muxikako erriarena; Arrazolan, 2002an, 43 urte leenago an emoniko munduko euskerazko leenengo mezaren gomutaz, egiñiko ospakizuna eta plaka ezartzea be omenalditzat artu daiteke.

Dana-dala, Jose Antoniok Kili-kiliren bitartez zabaldu oi eban mezua ez zan guztien gogokoa. Jakiña, Euskal Erri euskaldunak eta abertzaleak arerio ugari dauz batez be Espainia zaleen artean. Gaiñera, Kili-kilik, euskaldun izaten jarraitzeko, Euskal Erriak bere burujabe edo independente izan bear dauala esan izan dau beti. Beraz, Kili-kilik, omenaldiak gorabeera, ez dau bere burua saltzen, ez da isiltzen eta aurre egin deutse, motiboak ikusi dauzenez, agintari naiz politikariei. Eta Kili-kili begitan artua eta jazarria izan da.

Azken gauzatxuak

Ezinbestean, Kili-kili asko aipatu eta goraiatu dogu lan onetan. Izan be, Jose Antoniok or jarri eban, goian esan dogunez, bere onena, baiña Kili-kilik ez dau agortzen Jose Antonio Retolazaren bizitza.

Bestalde, a il barri zala komunikabideetan agertu ziran gauzatxu bi ez dira zuzenak: bata, gorago be esan dogu, Arrazolan 1959ko ekaiñaren 21ean euskeraz eta bizantziar-melkita errituan emon zan meza ez eban Jose Antoniok emon, baiña bai antolatu. Bestea, au da, Jesukristoren Barri Ona eta Eguneroko meza liburuak

emon ebazala argitara be ez da guztiz zuzena. Material orreek baziran leendik euskeraz. Jose Antoniok kezka sortu jakon, liturgia erri-izkuntzetan egiteko baimena etorri zanean, leengo latinaren orde, Espainiako izkuntza ofiziala, gaztelania, aukeratuko zala eta... Orduan, Jaime Kerexetaren Bibliako itzulpeneko testuak artu eta inprimategira eroan ebazan, ordu-rako prest eta liburu txukunean egozan gaztelaniazko irakurgaien formatu berean argitaratzeko aginduz.

Jose Antonio Retolazak, aldizkaria BIEren (Bizkaiko Ikastolen Elkarte) eskuetan izten dauanean, agur egiten deutse gaztetxo euskaldunei, euskaltzale lagunkideei eta Euskaltzaindiko jaunei. Euskaltzaleei agur egitean esanikoetatik lerro oneek ezarriko dodaz emen:

Gogora ekarri gura zindukedaze guztiak orain, illak eta biziak, eta guztiak banan-banan izendatu. Ori eziñean, biotzak diñost iru milla izendatu ezin badodaz, iru beintzat, iru oneek, aitatzeke: Kili-kili jaiio zanean titia emon eutsan Pili Zuazo; andik laster, irudiz jantzi eban Lander Gallastegi, eta gero, eskutik oraturik, erriz erri erabilli eban Iñaki Egurrola.


Labayruk egiñiko omenaldiaren amaieran, Ander Manterolak esaniko esaldi batzuk ekarriko dodaz ona eta nik neuk be orregaz amaituko dot:

Jose Antonio Retolazak toki gorde bat, aparteko leku bat merezi dauala euskalgintzan esango neuke.

Kili-kilik ez dauz euskaldundu bakarrik egin umeak; irudietan murgildu ere egin dauz.

Eziketa iñoiz be ez da ebidentzia, baiña azia ereinda dago, eta frutuak or dira. Esaterako, gaur zu omentzen zaituenetariko asko zure ikasbidean azi izan dira. Ori dala uste dot nik omenaldirik onena.

Luis Baraiazarra Txertudi



Euskal astea

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2014-11-24.- URANGA´tar Erika: Euskal Erriko Memoria Historikoa.

2014-11-25.- LARREA´tar Angel: Euskaldunok eta etorkizuna identitatea globalizazioan.

2014-11-26.- LARREA´tar Angel: Azken ikerketak euskerearen inguruan.

2014-11-27.- BARROETA´tar Klaudio: 100. ZUBIKARAI´tar Augustin.

2014-11-28.- ATUTXA´tar Paul: Euskal Edestia.



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2ª esk.

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

Ordua: **Zazpiretan**

EUSKERAZALEAK

IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD, disketea edo internet bidez: info.euskerazaleak@gmail.com

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

UDAZKENA

**Barrengorriak, ondoak, urrak ta gaztainak
dira garai onetan oparo ta bikainak
paseo bat egin eta gero
saskia bete bueltatzen gara bero!**

**Ortzadarra ostoetan irudikatua
orbelaren gainean dabil basakatua
egaztiak badoaz... Ai au pena!
Orrelakoa baita gure udazkena!**

**Arkumeak jaiotzen dira baserrietan
ordua aldatzen da gure ordularietan
gau luzeagotan... Amestera!
Bai zoragarria gure udazkena,
bai zoragarria gure udazkena!**